# kitto!

...eta

728 zkia. 2010-VII-2 ASTEKARIA

TOKIKOM













# Ikuskizuna GURPIL GAINEAN dator

## XXXIX. Arrate Igoera




Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR
multiópticas
lehenengoa zerbitzu optikoetan

*Galdutako hortzoia berreskuratzeko interbentzioa oso zehatza da, minik gabekoa eta arrakasta mailaren portzentaia altuarekin.*

Hortz Klinikan batez ere hortzei lotutako arazoak zuzentzera bideratutako tratamenduak egiten ditugu, baina hortzoiak bigarren mailan lagatzen ditugu. **Hortzoiek berebiziko garrantzia dute hortzerian ematen diren txantxarra eta hezur-galera bezalako arazoen prebentzioan.** Hortzoi osasuntsua oso ohikoak diren hortzak garbitzea edo mastekatzea moduko traumen aurrean babesa ematen duen hesi sendoa da.

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental
Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. Tel. 943 208552

# HORTZOI-GALERA oso modu eraginkorrean ZUZENDU DAITEKE




**ANTONIO MURILLO** doktorea **AINHOA ZULUETA** doktorea

# Tratamendu aurreratuenak Irazabal Hortz Klinikan




*Hortzoi eza, etorkizunean hezur-galerak eragingo ditu inplanteak.*




*Inplanteek epe luzera ondo irauteko hortzoi egokia erakusten dute.*

Gure ortzoia osasuntsu ez dagoenean egin beharreko lehenengo gauza tratatzea da. **Baina, zer gertatzen da hortzoia galdu egin denean?** Hortzak hezur-galera eta txantxarraren aurrean babesa galdu eta ahula, erasotzeko erraza bilakatzen dela. *GALDUTAKO HORTZOIA BERRESKURATZERIK BADAGO?* Maila oso altuan, bai, posible da. *NOLAKOA DA HORRETARAKO TEKNIKA?* Interbentzio oso zehatza da, baina bat ere minik ematen ez duena, zeinaren bitartez behar dugun hortzoi zatia ahosabaitik hartu eta hortzoia galdu den tokian ipintzen dugun.




*Hortzoi eza, etorkizunean hortzek hezur-galeraren zein hortz-erroak agerian duen zatian agertutako txantxarraren eragina jasango dute.*




*Hortzek epe luzera ondo irauteko hortzoi egokia erakusten dute.*

*SEGURUA DA?* Arrakasta mailaren portzentaiak oso altuak dira. Hala ere, kasu bakoitzaren zailtasunaren arabera aldatzen da arrakasta-portzentaia. *MINIK EMATEN DU?* Ez, bat ere ez. Anestesia lokala erabiltzen da interbentzioan eta 50 bat minutuko iraupena dauka. *ETA EBAKUNTZA OSTEKOA NOLAKOA IZATEN DA?* Oso ona. Mikrokirurgia erabilita egindako ebakuntza izatean, ematen den hantura minimoa da eta ez da inolako minik jasan behar. Hortzoietan arazoren bat duten pazienteei zein hortzoi-galera dutenei gure klinikara etorri eta guri iritzia eskatzea aholkatzen diegu, inolako konpromiso barik.

...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**
...eta kitto! Euskara Elkartea
**HELBIDEA:**
Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar
**TELEFONOAK:**
943 20 67 76 / 943 20 09 18
**FAXA:**
943 20 28 72
**Astekariaren E-MAILak:**
erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com
publizitatea@etakitto.com
**Elkartearen E-MAILak:**
elkartea@etakitto.com
normalizazioa@etakitto.com
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**
Itziar Albizu
Jose Luis Gorostegi
Silbia Hernandez
Koldo Mitxelena
Ekhi Belar
**ADMINISTRAZIOA:**
Marisol Uriarte
**KOORDINATZAILEA:**
Koldo Mitxelena
**ERREDAKZIO-BURUA:**
Silbia Hernandez
**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**
Jose Luis Gorostegi
**ARGAZKI ARLOA:**
Maialen Belaustegi,
E. Belar eta S. Hernandez
**HIZKUNTZA ARDURA:**
Juan Andres Argoitia
Maider Aranberri
**PUBLIZITATEA:**
Itziar Albizu
Belen Ulazia
**Tfnoa:** 943 20 67 76
**AZALA:**
J.L. Gorostegi
**BANAKETA-ARDURADUNA:**
Ainhoa Luz
**TIRADA:**
***7.950 ale***
**INPRIMATEGIA:**
GERTU koop. (Oñati)
**COPYRIGHT-A:**
...eta kitto!
**LEGE-GORDAILUA:**
SS/430/92
ISSN: 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

GAZTAI.- Burua, zentzu figuratuan. *"Harek daukan gaztaia! Iratargixa jirurik!".*
GAZTAIÑA LAKATZ/LOKOTZ.- Gaztaina biltzen duen azal arantzatsua. *"Gaztaiña lokotza lezkotxe oratu ezindako gauzia".*
GAZTAIÑA LAKATZA BAIÑO LATZAGUA.- Oso latza. Pertsonekin ere erabiltzen da, txarra, zitala esateko. *"Gure uezaba gaztaiña lakatza baiño latzagaua zan".*
GAZTAIÑA LOKOTZA LEZKOTXE ZITTALA.- Oso zitala. *"Gaztaiña-lokotza lezkotxe ikutu ezindako zittal bat eginda dago aspaldi honetan gure uezaba".*

# ESKUTITZAK

### ESKERRIK ASKO IKASTEN-ETIK

Ikasten-etik zuen lana eskertu nahi dugu guk burututako ekintzari eskainitako zabalkundea dela-eta, Kaleetan Kantuz-ek Eibarren antolatutako Abesbatzen Topagunearen inguruan.

Antolatzaileak oso pozik daude egun horretan izandako ekitaldietan jasotako erantzunarengatik eta ikusita jendeak zein ondo pasatu zuen gutzi horren inguruan; aldi berean, ezin ditugu ahaztu ikusleek emandako animoak.

Jakin ezazue zuen laguntzarekin ikaragarri lagundu diguzuela guzti hori irten zuen moduan aurrera ateratzen eta, horregatik, eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen.

Bestalde, gure eskerrik beroenak Kaleetan Kantuz-eko batzordeari, bertako partaideei, jardundako bolondresei, beste herrietatik etorritako parte-hartzaileei, Eibarko agintariei eta parte-hartzaile guztiei orokorrean. Eurei guztiei eskerrak, giro ezin hobea bizi izan genuen Eibarko kaleetan eta, zer esanik ez, Astelena frontoian egindako herri-bazkarian.

Eskerrik asko Ikasten-etik, gure elkartetik, Eibar, Debabarrena eta inguruko emakume eta gizonezkoei askotan esaten dieguna errealitate bihurtzeko aukera emateagatik: *"Arazoak arazo, guztiok daukagu asko esateko, asko besteei eskaintzeko, asko gozatzeko".*

**BEGO UNZUETA (IKASTEN)**

## asteko HEMEROTEKA esaldiak

*"Erlijio sinesmenei ohiko sinesmenen indarra eman nahi diozunean, kritikak onartzeko gai izan behar zara. Orduan pribatutasunera jotzen dute, `errespeta nazazu´ esanez eta halako mistizismo bat sortuz. Hori ez da txarra, baina esparru publikotik kanpo dago, norberaren esparru pribatukoa da eta, nik ezin badut eskuratu, ezin dut horri buruz eztabaidatu. Hortaz, ezin da esparru publikora eraman, saiatzen diharduten moduan; hori tranpati samarra iruditzen zait"*
(Agustin Arrieta-Urtizberea, Filosofiako irakaslea)

*"Gizartean gehiengoa burka eta niqab debekatzearen alde ei dago. `Esklaben´ kongregaziokoen edo abortatzeko eskubidearen aldekoen baino indar gutxiago duten emakume horiek gizarteratzeko asmoz, euren bizitzako sarrailari beste buelta bat ematea erabakitzen da. Zein arduratuko du horrek gure kaleetatik euren presentzia kezkagarria kentzen dugunean begibistatik? Badago inposizio zapaltzaileagorik debeku askatzaile bat baino? Despotismo ilustratuaren adibide garbiagorik?"*
(Juan Agirre, idazle eta ikerlaria)

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

gizarte kutxa

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria*

# Aralarren hirigintza proposamena



**ARALARREK EIBARKO UDALAK AZKEN LEGEGINTZALDIETAN ERAMANDAKO HIRIGINTZA-POLITKA SALATZEN DU** ohar baten bitartez. Alderdiaren berbetan, etxebizitza libreak sortzean oinarritzen da politika, gero espekulatzaileen eskuetan uzteko. *"Eibarko egoera etxebizitzaren 'boom'-aren isla da".* Datuen arabera Eibarko 1.624 etxe hutsik daude, guztizkoaren %12,75-a. Horrela, Aralarren ustetan orainak erakusten du herriko lur eraikigarri guztia esku pribatuetan dagoela eta guztiz hipotekatua.

Hirigintza-politika honen ondorioz, Aralarren iritziz Plan Orokorrak ez dauka bere gauzatzea ziurtatua, *"ezta gutxiago ere. Txonta nola geratu den ikustea besterik ez dago, eta Txonta moduanErrebal, Errekatxu, Mendiguren y Zarraua eta beste hainbat leku geratu daitezke horrela".*

Salaketa honen aurrean, Aralarrek hainbat proposamen luzatzen ditu hirigintza-politika aldatzeko. Lehenik, herriko gune degradatuak berpiztu eta konpondu hirigintza-gestio publikoaren bitartez. Bigarrenik, sistema fiskala berbideratzea. Ondoren, alokairuko etxeen finantziazioa erreztea. Eta azkenik, herritarren partaidetza sustatzea hiriaren diseinuan.

# Francisco Jordán de Urriesen bisita

**HERRIAK FRANCISCO JORDÁN DE URRIES GOBERNU ORDEZKARIORDEAREN BISITA JASO ZUEN** ekainaren 22an. Jordán de Urriesek San Andres pasealekua, Ego Gain-Isasi kaleen



bitarteko eskailera mekanikoak eta Ipuruako foball zelaia (eguzki-plaka fotoboltaikoak jarriko diren lekua) ikusi ahal izan zituen.

Eibarren 7,5 milioi euro jaso dira Zapatero Planetik, eta horiekin 2009an bost proiektu gauzatu ziren (Urki eta Amañako haurreskolak, Txantxa Zelaiko parkearen berriztatzea, Alfako hiri-altzariak eta Ego Gain-Isasi bitarteko eskailera mekanikoak), eta aurten beste bost egingo dira (Astelena frontoiaren aireatze eta berotze sistemak, Karmen-Iparragirre arteko igogailua, Ipurua foball zelaian eguzki-plaka fotoboltaikoak, udaletxearen administrazio elektronikoaren sistema eta Jardiñetako eskailera mekanikoak).

# Metaleko beharginak protestan

**ASOLA-IGARTZAKO BABES OFIZIALEKO ETXEEN (BOE) ZOZKETA UZTAILAREN LEHEN HAMABOSTALDIAN** egingo da. Horrela, 704 pertsonen artean banatuko dira 78 etxebizitzak. Arazorik izanez gero, zozketa irailaren lehen hamabostaldian egingo litzateke. Etxebizitza hauetarako 1.487 eskari egin dira, eta horietatik 693 izan dira onartuak eta 794 baztertuak. Ezezkoa jaso dutenen artean, arrazoi nagusienak 2005eko urtarrilaren 1a baino lehenago Eibarren erroldatuta ez egotea, eta sarrerak 9.000 eta 35.000 euro artean ez zutela benetakotzea izan dira.

## autuan

**MEZA BEREZIA KARMELITETAN**

Domekan, uztailaren 4an, meza berezia ospatuko dute Karmengo Amaren elizan, 11.00etatik aurrera: izan ere, urteetan Perun beharrean jardundako Jose Mª Arrieta abadeak Urrezko Ezteiak beteko ditu eta, hori ospatzeko asmoarekin, eukaristia berezia antolatu diote karmeldarrek.

**MARRAZKI ETA ZERAMIKA ESKOLAK**

Euskara eta Kultura batzordeak jakitera eman duenez, Marrazki eta Zeramika eskolen matrikulaziorako epea luzatu egin dute, uztailaren 5etik irailaren 10era arte. Pegoran bete daiteke matrikula, astelehenetik barixakura, 09.00etatik 13.30etara.

**ARRATEETARAKO BILERA**

Udaleko Jai Batzordeak aditzera eman duenez, 2010eko Arrateko Jaiak direla eta, egitaraua prestatzeko bilera uztailaren 6an, martitzenean egingo da, 19.00etan Portalean. Parte hartu nahi duten guztiak daude gonbidatuta.

# Miren Ibargureni agurra

**PROBIDENTZIAKO ANDRA MARI (ALDATZE) IKASTETXEAN AZKEN 30 URTEOTAN ZUZENDARI** kargua bete duen Miren Ibargureni jubilatzeko sasoia ailegatu zaio eta bere ikasle izandakoek, irakasleekin batera, omenaldia egin zioten eguaztenean, bere esker ona adierazteko asmoarekin.





## Altzoa, Emakumeen Mahaian

**UDALEKO BERDINTASUN ZERBITZUAK ALTZOA ALARGUNEN ELKARTEA BATU DU EMAKUMEEN MAHAIRA.** Kide berriaren sarrerak, *"kide guztien artean esperientziak eta beharrak elkarbanatu, eta ekintzak koordinatzeko"* balioko duela azaldu dute Berdintasun Zerbitzuaren ordezkariek.

Eva Juez Berdintasun Zerbitzuaren arduradunak aipatzen duenez, *"denbora generaman Altzoa Emakumeen Mahaian sartzeko gogoarekin, izan ere, talde esanguratsu eta zaurgarria ordezkatzen du elkarteak, eta euren ikuspuntu eta esperientziak baliogarriak izan daitezke gainontzeko elkarteentzat"*. Zentzu honetan, Juez pozik azaltzen da Altzoa Emakumeen Mahaiko kide izateagatik.





## Estaziñoko lanen lizitazioa

**IÑAKI ARRIOLA EUSKO JAURLARITZAKO HERRI LAN ETA GARRAIO SAILBURUAK EKAINAREN 21-EAN JAKITERA EMAN ZUENEZ**, Estaziño kaleko tren geltokiaren lanen lizitazio prozesua hasi egin da. Obrak 15 hilabetetan gauzatu beharko dira eta bere aurrekontua 2.996.339,27 eurotakoa izango da. Lanen esleipena uda ostean egingo da eta lanak urte amaieran hasiko dira. Tren geltokiak orain duen kanpoko itxura mantenduko du eta ailegaerraztasunean hobetuko da kalearen mailan kokatuz.

# auzorik auzo



## Errebaleko proiektua aurrera eramateko interesa

**Murias eta Moyua enpresek Errebaleko proiektua aurrera eramateko konpromisoari eusten diote** eta Udaleko ordezkariekin batu dira proiektua gauzateko konkurtsoan parte-hartzeko egin beharrekoak zehazteko. Bestalde, Errebaleko proiektuaren bideragarritasun ekonomikoaren ikerketa borradorea eginda dago.

Ezker Batuak, bestetik, Errebaleko proiektuaren gaineko informazioa prentsaren bitartez jasotzen duela salatzen du. *"Hori da gestio publikoaren informazioa eta gardentasuna"*, dio Eli Gomezek. Gainera, Udalak Murias eta Moyua enpresekin negoziatzea salatzen du. *"Nolako berdintasun kutsua izan dezake konkurtso publikoak Udalak enpresa birekin negoziatu badu?"*, dio Gomezek kontzeptu hori epailearen aurrean salagarria dela aipatuz.

## eibar kaleka

**Ifar Kale**

San Andres elizaren parean, aldapan gora Portaleraino garamatzan kaleak historia luzea duen horietako bat dugu, aintzinako Eibarko adibide garbia. Hala ere, ez dugu ahaztu behar inguruko beste kale askorekin gertatu zen bezala, 1937an izandako bonbardaketak eta atzetik etorri zen suak txiki-txiki eginda laga zutela kalea eta, beraz, ostean berriz jaso behar izan zutela.



**Pegora kopurua: 5.**

**Erroldatutakoak: 114.**

asteko %65eko datua

jarraipena izan zuen martitzeneko grebak industria sektorean, deialdia egin zuten sindikatuen arabera. EAEko 50etik gorako lantegien zerrendari begiratuta, guztien artean, %30etik gorako lanuztea %81,25ean izan zen.

## Esperientzia Eskolarako matrikulazioa



**DAGOENEKO ZABALIK DAGO DEBABARRENEKO ESPERIENTZIA ESKOLAN IZENA EMATEKO EPEA** eta horretarako aukera izango da urriaren 8ra arte. Esperientzia Eskolaren eskaintza 50 urtetik gorako Debabarreneko biztanleei zuzenduta dago eta ikasturte berria urrian hasi eta 2011ko ekainean amaituko da. Astean hirutan izango dira eskolak (martitzen, eguazten eta eguenetan), 09.30etik 12.30etara, Eibarren. Matrikularen prezioa 200 eurokoa da (ikasturtean zehar ordaintzekoa) eta honako agiriak aurkeztu behar dira: NANaren kopia, argazkia (karnetekoa) eta matrikulazio orria beteta (orria Debabarreneko edozein udaletxetan edo www. debegesa.com helbidean eskuratu daiteke). Matrikulaziorako agiriak udaletxeetan jasoko dituzte. Informazio gehiagorako 943 22 41 46 edo 626 77 36 76 telefono zenbakietako batera deitu daiteke.

## Eusko Trenen udako ordutegia martxan



**EKAINAREN 21-AZ GEROZTIK, EUSKO TRENEK UDAKO ORDUTEGIARI HELDU DIO, TREN ZEIN AUTOBUS ZERBITZUEN MAIZTASUNA AREGOTUTA.** Aldaketarik handiena asteburu eta jai egunetako gaueko zerbitzuetan dago, orain arte baino tren gehiago egongo baita martxan. Gainera, herrietako jaietarako zerbitzu bereziak eskainiko dira. Eibarri dagokionez, Arratera egunero zerbitzu bi eskainiko ditu lanegunetan (Eibartik 15.30etan eta Arratetik 16.00etan). Domeka eta jaiegunetan noranzko bakoitzean bost zirkulazioekin ibiliko da eta lanegunak diren zapatuetan, berriz, noranzko bakoitzeko zirkulazio batekin. Eibar-Deba Express linean ere aldaketak egin dituzte. Informazio gehiagorako 902-543210 telefono zenbakira deitu daiteke edo, bestela, www.euskotren.es webgunean ordutegi zehatzak begiratu.

EIBAR
Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua
CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA
☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04
1 Kardiologia
2 Zirugia
3 Dermatologia
4 Dietetika eta Nutrizioa
5 Analisi Klinikoak
6 Ortodontzia
7 Otorrinolaringologia
8 Pediatria
9 Psikiatria
10 Radiologia
11 Traumatologia
12 Barne Medikuntza
13 Koloproktologia
14 Erizaintza
15 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
BERRIA: Foto-depilazio Unitatea

San Andres Gozotegia
• tartak
• enkarguak
etxera
Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

EMAKUME ETA GIZON MODA
Valenciaga
KONFEKZIOAK
☎ 943 20 22 33
ZULOAGATARREN, 7

Dena
astiroago
doan garaian



# Gipuzkoa, bizkor

## Donostiako Bigarren Ingurabidea



Gipuzkoako errepideak goitik behera aldatuko dituen Donostiako saihesbide "berria".

Azken belaunaldiko 17 kilometroko autobide honi esker, 40.000 ibilgailuk baino gehiagok ez dute Donostiako saihesbidea igaro beharrik izango, batez ere ibilgailu astunak eta Gipuzkoa zeharkatzen dutenak.

300 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa eta trafikoa kudeatzeko teknologia modernoenak zure erosotasuna eta segurtasuna handitzeko.

GIPUZKOA
zurekin, aurrera

NORMAN



PIPERRAK




S.A.



# Amaña, jaietarako gunea

*Inoiz baino hurbilago egongo dira aurten Sanjuanak eta Amañako jaiak. Sanjuanak edizio honetan ekainaren 26 eta 27ko asteburura arte luzatu badira, Amañako jaiak aste bete aurreratzen dira egutegian San Kristobalgo jaiekin bat ez egiteko. Jai-giro etengabean bizi da herria.*



Astelehenean aurkeztu ziren 2010-eko Amañako jaiak auzo bereko Euskadiko Kutxaren egoitzan. Jose Antonio Alberdi 'Goma'-k egin zuen, urteroko moduan, aurkezpena eta jaiak antolatzeko orduan izandako zailtasunak azpimarratzen ekin zion saioari. Jaien inguruan *"egoera oso txarra"* bizi dela azpimarratu zuen eta alde ekonomikoan aurrera egiteko zailtasunak handiak direla aipatu zuen. Hala ere, iazko aurrekontuari eustea lortu du jai-batzordeak eta jaien antolaketan lagundu duten guztiei eskerrak eman zien 'Goma'-k.

Jaien egitaraua, beraz, urtero bezain betea da eta Amaña-Urko-Amaña krosa da desagertu den ekintza bakarra bariantean egiten ari diren obrak direla-eta. Egitarau sendoari hasiera emateko Miguel De los Toyos alkateak 19.00etan txupinazoa botako du gaur. Amañan jaio eta hezia da alkatea eta txupinazoa botatzeak *"ilusio berezia"* egiten diola aitortu zuen. Horren ostean: jaia.

**Norman, Piperrak eta S.A.**

De los Toyosek jaiei hasiera eman ostean kalejira egingo da Oria txarangarekin, eta umeek Gorriti eta bere animaliekin jolasteko aukera izango dute. 21.00etan, bestetik, datorren astean izango diren San Ferminak imitatzen saiatuko dira gaztetxoak entzierroan.

Gauean punk eta rockez beteko da Amañako auzoa. Lehenik eta behin Norman talde eibartarrarena izango da txanda. Azken urte bietan arrakasta izan duen taldea da eta bere lekutxoa egin du musika munduan. Bere lekua aspaldi hartu zuen musika munduan, bestetik, erriberako Piperrak taldeak. Josetxu, Txitxarro eta Rufok hamarkada bi daramatzate oholtza gainean eta euren erritmoak gazte eta ez hain gazteen belarrietan dabiltza dantzan. Plater nagusia Soziedad Alkoholikaren emanaldiarekin etorriko da. Talde arabarrak rock munduan arrakasta handia izan du estatu osoan azken hamarkada bietan. Azken urteetan zentsura jasan izan dute, baina euren musikak inoiz baino biziago dirau.

**Paella, herri-kirolak eta danborrada**

Musika-hotsak burutik ia kendu gabe, bihar 12.30etan paella-jana hasiko da. Horrela, 14.15etan herri-bazkaria egingo da 350 bat pertsonarentzako. Gainera, bazkalostean Uria eta Gisasola trikitilariek girotu egingo dute ekimena. 17.15etan hasiko dira umeen-jolasen ostean, herri-kirolei emango zaie txanda 19.15etan. Iñaki eta Inaxio Perurena aita-seme harrijasotzaileak, Fausto Mugertza eta Angel Arrospide aizkolariak, eta Juanjo Agirregabiria txinga-eroaleak erakustaldia eskainiko dute. 21.00etan umeen entzierroa egingo da berriz eta 23.15etan nagusien danborradari emango zaio hasiera. Danborrada erdian suzko erroberak botako dira, beraz, Caserio jatetxe parean gelditukо dira 50 danbor-joleak. Honen amaieran, Oasisek berbena eskainiko du.

**Pailazoak, antzerkia eta jotak**

Domekan egitarauak aurrera jarraituko du. 11.00etako mezaren ostean salda eta txorizoa banatuko da, eta 12.30etan umeen danborradari ekingo zaio.16.45 umeentzako jokoak eta igerilekua egongo da auzoan, eta Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazo txikiek ikuskizuna eskainiko dute. Txokolatadaren amaieran, bestetik, 'La Mecanica Naranja' kale-antzerkia egongo da ikusgai. Egunari amaiera emateko, berriz, Alma Navarraren eskutik jotak egongo dira.

Azken urteetako egitura aldatuz, jaien egitarau sendoaren aurretik egiten zen bertso-afaria aste bat atzeratzen da. Horrela, hilaren 9an Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolari durangarrak Caserio tabernan arituko dira.

'Kirol erregia' iñoiz baino nagusixago da azken hillabetian. Begirada danak Hego-Afrikara begira dagoz, Munduko Txapelketia jokatzen dihardutelako han. Herrialdien arteko neurketak estatu-kontuak bihurtzen dira, eta emaitzek herrixen bizimoduan eragiña dake.

# Zelan ikusten dozu foballaren presentzia gizartian?



### Carlos Herrera
**38 urte**
**bihargiña**

Foballak, berez, ez daka garrantzixa askorik, baiña jendiak garrantzixa emoten detsa modu batian edo bestian errealidadetik aldentzeko. Jendiak eguneroko bizitzan dittuan arazuak ahazteko erabiltzen dau foballa. Guk tallarrian be Munduko Kopako apostuak egin dittugu.



### Nerea Zuluaga
**34 urte**
**administrarixa**

Foballa ez jata bape gustatzen eta kokoteraiño nago. Gaiñera, oin Munduko Kopakin egunero dakagu foballa eta gehiegizkua dala begittantzen jata. Jendiak arreta gehixegi eskaintzen detsa foballari, nere ustetan.

### Emilia Nieto
**84 urte**
**jubilaua**

Neretako foballa ez da existitzen be; ez detsat bape kasorik egitten. Egixa da jendiak gustu ezbardiñak dittuala eta askori foballa gustatzen jakuela. Baiña neri ez jata bape inporta foballaren inguruan zer gertatzen dan; ezebe gaiñera.



### Iñaki Laskurain
**41 urte**
**bihargiña**

Normala da gizartian islada eukitzia, baiña arlo ekonomikuan be haundixegixa daka. Jendia kale gorrixan eta miserian daguan bitartian, foballak diru asko hartzen dau: soldatak eta soldatak ez diranak. Jendiak holakuak bihar dittu, foballa ez bada, antzerkixa. Herrixaren opiua da.



EIBARKO
HIZKUNTZA ESKOLA
OFIZIALA

Jardiñeta, 3
20600 Eibar

*EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA*
**2010/2011**
**MATRIKULA LIBREA**
**Uztailaren 1etik 20ra arte**

HIZKUNTZAK: ALEMANA, EUSKARA, FRANTSESA ETA INGELESA

Matrikula egin nahi dutenek **Internetez bakarrik** egin ahal izango dute www.eoieuskadi.net orrian. Argibide gehiago: www.eoieibarheo.net orrian edo **943200618** telefonoan.



*Herrian jai giroa nagusi zen egunekin batera izan zen gurean Carmen Kilner, Basque Children of '37 Association UK (Erresuma Batuko '37ko Euskal Umeen Elkartea) ordezkatzen. Errebalen CAN-ek duen bulegoan egindako aurkezpenean, Kilnerrek elkartearen proiekturik berrienaren berri eman zuen: 1937an, gerratik aldentzeko Ingalaterrara ebakuatu zituzten Euskal Herriko umeen historia kontatzen duen material didaktikoa kaleratu eta bigarren hezkuntzako ikasleen artean banatzea, hiru hizkuntzatan (euskeraz, gazteleraz eta ingelesez). Horretarako, baina, lehenik eta behin ikastetxeek horretan izan dezaketen interesa nolakoa den ikusi nahi dute.*



## CARMEN KILNER,

### Erresuma Batuko '37ko Euskal Umeen Elkartea:

# "Ingalaterrako gobernuak herritarrek behartuta hartu zituen umeak"

***- Nola jaio zen zuen elkarte hori?***

Elkartea 2002an sortu genuen, Ingalaterrara ebakuatutako hainbaten seme-alaben artean. Izan ere, norberaren historia, familiaren nondik norakoak eta antzerako gaiekin interesa pizten den adinera ailegatuta, gertatutakoa ulertzeko asmoarekin, pasarte zatiak batzen eta elkartzen hasi ginen, gerrako ume haien historiarekin interesatuta zeuden ikertzaile, historialari eta beste hainbaten laguntzarekin. 1937an Ingalaterrara ailegatu ziren umeek bataz beste 5 urte zituztela kontuan hartzen badugu, ba gaur egun duten adina ateratzea erraza da. Oso-oso nagusiak dira edo, bestela, honezkero hilda daude. Horregatik, gure asmoa ahal dugun material guztia jaso, gorde eta zabaltzea da, orduan gertatutakoaren testigantza jasota geratu dadin.

***- Zuk zeuk, zelako lotura daukazu gerrako ume horiekin?***

Gure amama elgoibartarra zen eta nere ama, Ana Mª González Garate, 22 urteko irakaslea zen umeekin batera, Habana ontzian Ingalaterrara ailegatu zenean, eskuan Errepublikako pasaportea zuela.

***- Pauso bat haratago, jasotako historia hori bigarren hezkuntzako ikasleei azaldu nahi diezue, bai Ingalaterran bai Euskal Herrian bertan. Zergatik interes hori?***

Ingalaterrako hainbat ikastetxek ekimen bereziak garatu dituzte azken urteotan, hain zuzen ere Espainiako gerratik ihesi joan ziren ume horiei buruz gehiago jakin nahian. Lanak, erakusketak eta bestelakoak antolatu dituzte hango eskoletan. Hori ikusita, han interesa baldin badago, hemen ere interesa egongo dela uste dugu, logikak behintzat hala agintzen digu, ala?

***- Eta zelakoa izan zen Ingalaterrara joan ziren ume horiek bizi izandako historia?***

Ingalaterrara etorritakoen kasua beste ebakuazio guztietatik aldentzen da, berezia izan zen. Izan ere, Sobiet Batasunera eta beste herrialde batzuetara gobernuek bultzatuta joan ziren umeak, baina Ingalaterrako gobernuak ez zuen ebakuazioa bultzatu, egoerak eta herriak berak behartuta hartu zituen umeak. Izan ere, Gernikako bonbardaketaren ondoren, The Times egunkariak kaleratu zuen artikulo batek eragin izugarria izan zuen herritarren artean, jendea benetan errukitu zen eta, orduan, moduren batean esatearren, gobernua ume horien alde zerbait egitera behartu zuten. Horrela bete zuten Habana itsasontzia: berez 800 lagun hartzeko moduko itsasontzia zen, baina 4.000 lagunekin bete eta Ingalaterraraino ekarri zituen umeak.



***- Eta behin hara ailegatuta, nola antolatu zuten ume horientzat harrera?***

Ingalaterran kolonia bereziak sortu zituzten eurentzat. Ideia, Espainiako Errepublikak aldarrikatzen zuen heziketaren berezitasun haiei eutsi eta umeak horiei jarraituta haztea zen. Hasieran ia 100 kolonia zabaldu ziren. Umeetako batzuk, zortea izan zutenek, ia hasieratik toki batera ailegatu eta bertan geratzeko aukera izan zuten. Baina koloniak itxi ahala, beste batzuen zortea oso bestelakoa izan, toki batetik bestera mugitzen ibili zirelako.

***- Sasoi gogorrak izan ziren, duda barik. Zer ikasi dezakete gaur egungo gazteek gerrako ume haien esperientziatik?***

Hamaika arrazoirengatik, gaur egun ere herrialde guztietan dauzkagu euren herrialdeetatik behartuta irten diren umeak eta uste dugu horien errealitatera gerturatzeko modu egokia izan daitekeela. Horrez gain, jakina, solidaritatea, gizatasuna eta beste balore batzuk lantzeko egokia izan daiteke guk proposatzen dugun materiala. Ikastetxeetara proiektuaren berri ematen zuen posta elektronikoa zabaldu genuen eta irailean berriz ere eurekin harremanetan jarri nahi dugu, benetan interesa dagoen ala ez jakiteko. Gaiarekin interesa dutenek ere gurekin harremanetan ipintzeko aukera daukate, www.basquechildren.org webgunean edo carmen@basquechildren.org helbidera idatzita.


5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak
ZEZEN BIDE
AUTO ESKOLA
AUTO ESCUELA
CURSOS INTENSIVOS
ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30
GIDA-BAIMENAK
San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR


Euskaraz lan egiteak motibazioa pizten du
bai euskarari
Euskaraz kirola gehiago gozatzen da
Euskaraz aritzeak konfiantza ematen die bezeroei
Euskaraz negozio hobeak egin daitezke
balioa eta berrikuntza
1.500 entitate baino gehiago ziur daude
10 urte

# Lip Dub lehiaketa bizi-bizi

***Poliki-poliki bada ere, taldeak hasi dira euren lanak entregatzen. Hasieran, lanak entregatzeko epea ekainerako zehaztu zen, baina uztailaren 19an dago zehaztuta orain. Badago, beraz, lan berriak egiteko denbora oraindik.***

Citroenek bultzatuta Lip Dub lehiaketa antolatu zen duela hainbat hilabete eta bertan eibartar talde batek hartu zuen parte. Junkal Txurruka Udaleko euskera teknikariak lana ikusi eta inspirazioa izan zuen. Lip Dub horretan aritu zen Josu Mendikuterekin kontaktuan jarri eta ea euskerazko Lip Dub-ik egin zen galdetu zion. Erantzuna ezezkoa zen. Horrela, Euskerazko I. Lip Dub Lehiaketa jarri zen martxan.

Sariak Eibar Merkataritza Gune Irekiak eskainiko ditu. Eibarko dendetan gastatzeko 5.000 euro jasoko ditu irabazleak eta beste 1.000 euro eskudirutan. Hori dela-eta, grabaketak Eibarren egin beharko dira eta herriko dendekin nolabaiteko zerikusia izan behar dute. Eibar, teknologia eta euskera uztartzen dira ekimen honetan, izan ere, abestiak euskerazkoak izan behar dira.









“Naturarekin bat” / Skalariak

## Bideoak YouTube-n

Dagoeneko hiru taldek aurkeztu dituzte euren lanak. Mogel Isasiko taldeak Skalariak-en ‘Naturarekin bat’ abestiarekin egin dute Lip Dub-a eskolan bertan. Euskaltegiko taldeak, bestetik, The Uski´s-en ‘Katuek bezala’ abestiaren doinuekin egin zuten grabaketa Zuloagatarren kalean. Eta La Sallekoek , bestetik, Betagarriren ‘Bidea gara’ kantua erabili zuten Toribio Etxeberrian bideoa grabatzeko. Ekainaren 21ean, bestetik, Gari-ren ‘Amets’ abestiarekin Lip Dub-a grabatu zuten Baikara dantza-taldekoek Eibarko Bizikleta plaza inguruan. Horrez gain, beste talde batek ere izena eman du ‘Pixka bat es mucho’ abestiarekin grabaketa egiteko Toribio Etxebarria kalean.


“Bidea gara” / Betagarri

“Zatoz nigana” / Gari




Taldeen lanak YouTuben daude ikusgai eta, epaimahaia egongo bada ere, publikoak %50ean aukeratuko du irabazlea. YouTuben bere bozkak egin ahal izango ditu jendeak eta, ondoren, hiru finalisten artean irabazlea erdibana aukeratuko dute epaimahaiak eta publikoak Coliseoan egingo den jaialdian.

## Izen-ematea interneten

Lehiaketan parte-hartu nahi izanez gero, www.eibar.org webgunean egin beharko da izen-ematea. Horretarako, 30 laguneko taldea osatu beharko da gutxienez eta, lehen aipatu bezala, euskerazko abestia aukeratu beharko da eta Lip Dub-a Eibarren grabatu, herriko dendekin eta ostalaritzarekin zerikusia izanik.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan
Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak
NTRA. SRA. DE BEGOÑA
EHORZKETA-BEILATOKIA
• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK
BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.
ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 Faxa: 943 202564

AMETSA BAR EIBAR
Toribio Etxebarria, 4

*Herenegun aurkeztu zuten Krabelin hotelean Arrateko auto igoeraren XXXIX. edizioa. Escudería Eibarrek antolatzen duen proba mendiko Espainiako Txapelketarako baliagarria da, zehatzago esateko, Euskal Herrian jokatzen diren artean bakarra sailkapen horretarako.*



Herenegungo prentsaurrekoan parte hartu zutenak, Krabelin hotelaren kanpo aldean.

# Bihar jokatuko da Arrate auto igoeraren XXXIX. edizioa

Aipatutako prentsaurrekoan izan ziren Escuderia Eibarko Ruben Moro eta Gorka Etxeberria, Angel Gurrutxaga Automobilismo Euskal Federazioko presidentea, Pedro Roca CM mailako Espainiako txapelduna eta Miguel de los Toyos Eibarko alkatea.

Badira berritasunak aurtengo edizioan eta aipagarrienen artean dago proba biak (A fasekoa eta Bkoa) egun berean, hau da, bihar jokatuko direla. Hori dela-eta, gaur bertan egingo dira autoen egiaztapenak, 16.00etatik 21.00ak arte, Untzaga plazan. Hor izango da aukera polita autoen modeloak ikusteko.

Biharkoari dagokionez, goizeko 07.30-etan itxiko da errepidea; handik ordubetera entrenamendu libreekin hasiko dira eta 10.00etan entrenamendu ofizialei ekingo zaie. A faseko edo "Chevrolet" lasterketa 11.30etan hasiko da eta amaieran, 13.00-etan, errepidea zabalduko zaio trafikoari. Ordubete bakarrik, 14.00etan berriro itxiko baita, arratsaldeko jardunari ekiteko: hor 15.00etan hasiko dira entrenamendu libreak; handik ordu eta erdira entrenamendu ofizialen hitzordua izango da eta, beste ordu eta erdi pasata, hau da, 18.00etan hasiko da B faseko edo "Hyundai" lasterketa. Sari banaketa ekitaldia 20.00etan egingo da eta hor ere bada berritasunik: Untzagatik El Corte Inglésaren gunera eramango baitute antolatzaileek.



**Ia 5 kilometroko ibilbidea**

Lau kilometro eta 990 metro ditu auto-gidariek bete beharreko ibilbideak, asfalto ona duena baina baita bihurgune ugari ere; horrek egiten du gidaritza teknikoa erabili beharra bihurguneak eta azkar ibiltzea egoki lotzeko.

50 pilotok eman dute izena edizio honetan parte hartzeko: Euskal herriko onenekin batera, Asturias, Galizia, Andaluzia, Valentzia eta hainbat herrialdeko gidari onenek jardungo dute Arrateko igoeran. Tartean dira Pedro Roca eta Jose Antonio López Fombona (azken hau iazko irabazlea), biak ere Espainiako txapeldunak, bata CM mailan eta bestea turismoetan, hurrenez hurren. Jose Antonio Aznar eta Raul Borreguero aurkari gogorrak izango dituzte aipatutako biek. Eta ez dira faltako ere Pantxo eta Aritz Egozkue izen handikoak. Escudería Eibarrek bederatzi ordezkari izango ditu biharkoan: Joseba Egaña, Jorge Rodríguez, German Agreda, Aitor Arrieta, Alex Velasco, Josemi Gabilondo, Jesus De la Fuente, Joseba García eta Kepa Karmona.

**Krisiari aurre eginez**

Antolatzaileek gogotsu ekin diote aurtengo proba antolatzeari, jakinda ere sasoiak ez daudela ur sakonetan sartzeko moduan. Hala ere, ikuskizuna ziurtatuta dago, *"gidari onenak izango baitira tartean"* euren esanetan. Aurretik ere oso ondo baloratu izan dute Escudería Eibarkoen antolakuntza hori neurtzen dituztenek. Zaletuen presentzia da euren eskuetatik kanpo dagoen bakarra eta horretan ere itxaropentsu nabaritzen zaie: *"Hori bai, segurtasun arauak errespetatzea eta ingurunea garbi lagatzea eskatuko genieke, bidenabar komisarioen eskaerei kasu eginez".* Atzo, bestalde, pilotoen arteko mahaingurua egin zen Isasiko Kiroljokoaren instalazioetan, Alberdi eta Txus Jaio piloto handiak tartean zirela.

# Eibar Triatloi Taldeak bikain jardun zuen Donostian zein Zarautzen

**DONOSTIAKO TRIATLOI SPRINT-AREN V. EDIZIOAN GURE HERRIKO TRIATLOI TALDEKOEK** ikaragarrizko maila erakutsi zuten eta hainbat txapelketa bereganatu ere; horrela, Ane Ziaran junior onena izan zen eta Andoni López kadete onena eta, aldi berean, Aitor Iturricastillo 2.a izan zen 23 urtetik azpiko Gipuzkoako txapelketan. 400 bat triatloilari bildu ziren proban (750 metro igerian, 25 km bizikletan eta 5 km antxitxiketan Kontxa hondartzatik), euren artean Eibarko sei: sailkapen orokorrari begira, 40. postuan Igor Atxa, 45.ean Iturricastillo, 81.ean López, 111.ean Alberto Bravo eta 134.ean Iker Aranzibia.

Zarautzen ez zuten maila kaskarragoan jardun Eibar Triatloi Taldekoek eta, esaterako, Iñigo Unanue beteranoen 1 mailako azpitxapelduna izan zen. Kostaldeko herriko triatloiaren 24. edizioak 500 bat parte-hartzaile izan zituen, Donostiako baino proba luzeagoan (2.500 metro igerian Getariatik Zarautzera, 85 km bizikleta gainean eta beste 20 oinez Zarautzen zehar). Eibartarrak honako postuetan sailkatu ziren: Unanue 37.a izan zen, Iñigo Agirre 91.ean, Haritz Uria 130.ean, Joseba Mikel Ortega 147.ean, Alejandro Altuna 167.ean eta Javier Murcia 285.ean.







# Eibartarrak bigarren Kruzetaren omenezko xake txapelketan

**EURIA PROTAGONISTA IZAN ZEN EIBARKO HIRIA TXAPELKETAREN 26. EDIZIOAN** eta, lehenengo zazpi txandak Untzaga plazan jokatu ondoren, lehiaketa udaletxeko arkupetan amaitu zen. Errenteriako Fomento Cultural izan zen jaun eta jabe partida azkarreko torneo horretan eta hamar puntuko aldea kendu zion sailkapeneko bigarrenari, Klub Deportiboko A taldeari. Haritz eta Julen Garrorekin batera, Diego Olmok eta Edu Olabek osatu zuten talde hori eta izan ziren beste eibartar batzuk ere torneoan: Deporreko bigarren taldea osatu zuten Emilio Jose Freire, Manuel López, Mikel Baena eta Iker Narbaizarekin batera, kanpoko taldeekin etorritako hirukotea (Julen Egurrola Izeagarekin, Jose Ricardo Gómez Egidazurekin eta Fernando Markina Easorekin). Guztira, 13 taldek hartu zuten parte eta Juan Benitok, Mikel Alvaradok eta Jose Ramon Rosek (Fomento) eta Ieray Galzagorrik (Abadiño) irabazi zituzten lau mahaietako jokalari onenen sariak.

# Olaberriaren garaipenak Debabarrenarentzat

**LEIRE OLABERRIAK EDERKI HASI DU IBILBIDEA KLUB DEPORTIBOKO TXIRRINDULARITZA TALDEAREKIN** eta, Osintxun bereganatutako Gipuzkoako txapelketa nahikoa ez eta Espainiako bien jabe egin zen: erlojupekoan minutu erditik gora kendu zion Rosa Bravo (Gaztela-Leon) bigarrenari eta lineakoan esprintean nagusitu zen, berarekin sartutako zazpikoteari aurrea hartuz. Sasoi bikainean dago eta horrela joan zen Olaberria Debabarrena-Kirolgi Eibarko taldearekin astelehenean hasi zen Italiako Girora.





# Areto-foballekoak nagusi beteranoen artekoan

**ANAIARTEKO EGUN POLITA IZAN ZUTEN ARETO-FOBALLEKO ETA EIBAR KE-KO BETERANOEK IPURUA KIROLDEGIAN** jokatutako euren arteko norgehiagokan. Zelaian ikusi behar zer gertatuko litzatekeen, baina kantxan areto-foballekoen "amarruak" nagusitu ziren eta, azkenean, 7-5ekoa adierazten zuen elektronikoak. Bixente, Artetxe, Oliden, Olano (azken honek inauguratu zuen markagailua) eta enparauen ahaleginak ez ziren nahikoak izan aurrean Antonio, Quintas, Manu, Merino eta ingurukoen arteari aurre egiteko.

# Dominak Kalamuakoentzat Logroñoko Judokian ere

**BERDIN DIO ZENBAT LAGUN BATZEN DIREN TORNEOETAN, KALAMUAKO JUDOKEK DOMINAK BILTZEN JARRAITZEN BAITUTE.** Horrela, Logroñon jokatutako "Judokita" nazioartekoan 300dik gora judoka izan eta goi maila nagusitu arren, Jon Alzagak urrezkoa lortu zuen 13 urtetik azpikoetan, Nekane Muguruzak zilarrezko bana 15 eta 18 urtetik beherakoenetan eta Pablo Vallek brontzezkoa 13 urte baino gazteagoen artean.



## Vivac-a egingo dute Pirinioetan Deporreko mendizaleek

**UZTAILAREN 17-18KO ASTEBURUAN, EGURALDIAK LAGUNTZEN BADU, VIVAC-A EGITEKO ASMOA DUTE** Klub Deportiboko mendi batzordekoek: hori batzuen kasuan, beste batzuk refugioan egingo baitute lo. Ez da hori izango ekainean Pirinioetara egingo duten irteera bakarra, bihar Akier-era joango baita beste talde bat.

Aurretik ere, sanjuanak mendiz-mendi igaro du mendi batzordeko taldeak. 23an La Lezeko arroil jaitsiera egin zuten, programatik kanpo zegoena; baina, arroil sasoia denez, beste irteera batzuk egiteko asmoa ere badute (parte hartu nahi duenak Deporretik pasatzea dauka izena emateko). 24an eta 25ean, bestalde, Gavarnieko kresta egin ez bazuten ere (denboraldi kaskarrarengatik), Rolandoren Bretxan egin zuten lo (vivac-a) aurrez ikusitako hirumilako zazpiak eginez.

## Pilota torneoaren final jendetsuak

**JENDE ASKO IZAN ZEN ASTELENAN JOKATUTAKO SAN JUAN PILOTA TORNEOAREN FINALAK IKUSTEN**. Benjaminetan, Agirre-Sologaistua bikotea Astigarraga-Martín baino gehiago izan zen (18-13); alebinetan, bestalde, norgehiagoka lehiatuan, Egurrola-Ibarluzea bikoteak 18-17 irabazi zion Arregi-Iriondori. Senior mailako finalei dagokionez, lau eta erdiaren barruan Egaña erraz nagusitu zitzaion Etxaniz-i, 22-11 irabaziz. Binakako finalean, Arrillagak eta Lizarraldek Unamunzagak eta Portuk baino serioago jokatu zuten partidu guztian eta 22-15 nagusitu ziren amaieran.

## Erritmikako ikastaroak uztailean



**200 NESKATILA IZAN ZIREN IPURUAN EGINDAKO GIMNASIA ERRITMIKAKO IKASTURTE AMAIERAKO ERAKUSTALDIAN**, tartean, eta Eibarkoekin batera, Berriatua, Mallabia, Markina, Mutriku, Soraluze eta Urretxuko partaideak. Erakustaldian hartu zuten parte ere Espainiako txapelketan parte hartu zuen federatutako laukoteak: Olatz Laskurain, Olatz Ibaibarriaga, Carmen Gamundi eta Maria Fernández. Uztailean, bestalde, gimnasia erritmikako hastapen eta hobekuntza ikastaroak eskainiko dira: interesatuek 635-702474 telefono zenbakira deitu dezakete.

## Squash-eko Openak cum laude lortu du VII. edizioan




**GERO ETA INDAR HANDIAGOA DIHARDU HARTZEN EIBAR HIRIA SQUASH OPEN-AK ETA AURTEN**, Udalaren eta El Corte Inglésaren babesarekin, arrakastatsua izan da guztiz, bai antolakuntzari dagokionez baita parte-hartzearen arloan. Guztira, 46 jokalarik jardun dute torneoan, euretatik hamalau Klub Deportibokoak: Alberto Ferreiro, Sergio Salgado, Jon Losada, Xabi García, Victor Calderón, Fernando Valenciano, Jonatan Alustiza, Angel de Arriba, Jon Arana, Asier Manzano, Oscar Ferreiro, Diego Horrillo, Maicon Vinicius Crespo eta Enrique López. Miguel Ruizek eraman zuen saria finalean Aitor Yanguasi irabaziz eta Alberto Ferreiro eibartarra hirugarrena izan zen.



## Junior mailako 116 txirrindulari San Juan Sariaren erlojupekoan

**AURTEN FORMATU BEREZIA IZAN DU EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEAK ANTOLATZEN DUEN SAN JUAN SARIAK** eta, lineako lasterketa izan beharrean, XXI. Gipuzkoako Itzuliaren prologoa bihurtu da, erlojupeko modalitatean jokatutakoa. Untzagatik Unberainoko 1,8 kilometroko distantzia bete zuten junior mailako parte-hartzaileek eta Loic Chetout (Leclerc) irabazleak orduko 25 kilometroko batazbestekoa gainditu zuen; Eduardo Ardaiz (Bi-Lux) eta Sergio Santamaria (Andoaingo) izan ziren berarekin podiumean. Santamaria izan zen 1. urteko juniorrik onena eta Irene Usabiagak irabazi zuen emakumeen artean, taldeka Andoaingo nagusitzen zen bitartean.

## Eibarrek 2. B mailako II. multzoan

**MULTZO ONA EGOKITU ZAIO EIBAR KIROL ELKARTEARI DATORREN DENBORALDIRAKO,** egin beharko dituen bidaiei erreparatzen badiogu behintzat. Oraingoan Galiziako taldeak ez dira II. multzo horretan izango eta horrek bidaia motzagoak eskainiko dizkio Manixen taldeari. Asturias, Kantabria, Errioxa, Aragoi, Nafarroa eta EAEko komunitateko taldeak bilduko ditu multzoak, tartean Sanse, Real Unión, Alavés, Athletic B, Barakaldo, Lemoa, Osasuna B eta Peña Sport.



## Udako diaporamak San Andreseko klaustroan

**MARTITZENEAN, UZTAILAREN 6AN HASIKO DIRA URTERO SASOI HONETAN ARRATE KULTUR ELKARTEAREN ESKUTIK ESKAINTZEN DIREN** udako diaporamak. Martitzenean hasi eta eguena bitartean, San Andres elizako klaustrotik mugitu barik munduan bidaiatzeko aukera egongo da, bertan emango dituzten diaporamei esker. Lehenengoa "La Tradart" izenburukoa izango da, M. A. Otsoa de Alda eta I. Díaz de Garaiok egina eta Afrikako basamortu eder eta ezezagunenetakoari buruzko ikus-entzunezkoa. Eguaztenean, berriz, Asier Aranzabal eta Mila Gallastegiren "Himalaya ezezaguna: Kaxmir eta Ladakh" izango da ikusgai eta hirugarren ikus-entzunezkoak, Martin Bono eibartarrarenak, Siria eta Jordanian barrena bidaiatzeko aukera emango digu. Proiekzio guztiak 22.00etan hasiko dira. Eta Kutxak babestutako hiru emanaldien ostean, uztailaren 9an "Una noche de verano con poemas del alma" izenburuko lana eskainiko dute Maite Lorenzo, Ernesto Barrutia eta Eduardo Falces aktoreek, Leticia Ibáñez, Yasmin Saoud eta Naome Saoud musikariek lagunduta.



## Gastadoreak Lasarte-Orian

**SANJUANETAN HERRIKO KALEETAN DANBORRADAN JARDUN OSTEAN, ORAINDIK ERE LASARTE-ORIAN** jarduteko indarra eta gogoa izan zuten hainbatek: hilaren 26an Eibarko Danborradako Gastadoreak bertara joan ziren, han San Pedro jaiak ospatzen zituztela aprobetxatuta, gure herriko ordezkaritza zabalarekin. Parte hartu zutenek azaldu digutenez, *"ederto"* ibili ziren hango jaietan. Beste urte batzuetan Gorliz aldera jo dute Eibarko Danborradakoek, baina aurten aldaketa izan dute programazioan.

## Asier Errasti jaialdirako deialdia



**UDALAK ETA PLANO CORTO KULTUR ELKARTEAK ASIER ERRASTI EIBARKO XI. LABURMETRAIA LEHIAKETAN** (Javier Agirresarobe Sariak) parte hartu nahi dutenentzat deialdia zabaldu du. Lehiaketan sail bi izango dira: fikzioa eta animazioa, DVD formatuan entregatuta. Espainian jaio edo bertan bizi direnek har dezakete parte lehiaketan, banaka zein taldeka. Lanek gehienez 30 minutuko iraupena izango dute eta gaia librea da. Lehiaketara lanak aurkezteko epea urriaren 9an amaituko da. Parte hartzeko baldintzak eta bestelako argibideak www.planocorto.es webgunean kontsultatu daitezke.

**Javier Agirresarobe**

Bestalde, aste honetan bertan Espainian estreinatu den "Eclipse", "Crépusculo" banpiro-historiaren azken filman beharrean jardun du lehiaketako sariei izena ematen dien Javier Agirresarobe eibartarrak. David Slade pelikularen zuzendariak promoziorako agerraldietako batean egindako adierezpenei jarraituta, *"Europa mailan oso estimu altuan dagoen profesionala da Agirresarobe eta, Amerikako Estatu Batuetan oraindik oso ezaguna ez bada ere, nik aurretik bere lana ezagutzen nuen. Asko ikasi dut bere aldamenean".*



## Arrateko Andra Marikoen lanak Guggenheimen

**2009-2010 IKASTURTEAN ZEHAR, BILBOKO GUGGENHEIM MUSEOAREKIN ELKARLANEAN, URKIKO ARRATEKO ANDRA MARI** ikastetxeko 3. eta 4. mailako ikasleek Artea Ikasbide programan hartu dute parte. Eskolako irakasleak, Manu Muniategiandikoetxea artistarekin batera, kontsumoa eta garapen iraunkorraren inguruan egin dute lan, horien inguruko hausnarketa eta eztabaidak barne: "Eztabaidetan *"beharrezkoa dena"* eta *"gehiegizkoa dena"* bereizteko jardun dugu berbetan. Artearen bidez birziklapenak ematen dituen aukera estetikoak zeintzuk diren erakutsi nahi izan diegu ikasleei. Umeek *"kontsumoaren monstruoak"* sortu dituzte eta baita bere buruen erretratuak egin ere, kontsumoarekin eurek duen harremana adierazteko asmoarekin. Lan guztiak eskultura handi batean pilatu dituzte, kontsumoaren gehiegikeria aditzera emanez. Lan horiek batzen dituen erakusketa ekainaren 14an inauguratu zen Bilboko Guggenheim museoan eta irailera arte egongo da martxan.


...eta kitto!n
SALGAI
(Urkizu, 11)
Pasa-falta:
- Nagusiak, 26 euro
- Umeak, 20 euro
Rugbi:
- Nagusiak, 26 euro
...eta kitto!:
- Nagusiak, 20 euro
Kamisetak SALGA

# laburrak

## Musika Eskola

Juan Bautista Gisasola Musika Eskolan, musika hizkuntza taldean, talde instrumentalean eta koru-taldean matrikulatzeko aukera izango da uztailaren 9ra arte, aurretik plaza guztiak bete ez badira. Matrikulak Pegoran egin beharko dira eta klaseak irailaren 9an hasiko dira.

## Sustatu "orrialdea"

Facebook-en orain arte pertsonalitate bikoitza izan du Sustatuk: batetik zaletuen orri bat zuen eta, bestetik, profil pertsonala ere bazuen. Hala ere, atzoz geroztik profila ezabatu eta aurrerantzean orriaren jarraitzaile izan beharko du Sustaturekin bat egin nahi duenak.

## Lambretta ikusgai

Bihartik aurrera eta uztailaren 9ra arte Lambretta motorrak ikusgai ipiniko dituzte herriko hainbat erakusleihotan, hurrengo asteburuan eta San Kristobalko jaien inguruan ospatuko den Lambretta kontzentraziorako girotzen joateko.

## Egoaizia Portalean

Aurten 10 urte betetzen dituen Egoiaizia Gobernuz Kanpoko Erakundearen inguruko argazki erakusketa ikusgai dago Portalea tabernan. Besteak beste, kooperaziorako taldeak garatzen diharduen proiektuen berri jaso daiteke eta Egoaizia urtean behin argitara ematen duten aldizkaria doan hartzeko aukera ere eskaintzen dute. Informazio gehiagorako: www.egoaizia.org

# Bizikleta klasikoen topaketa



**DOMEKAN BIZIKLETA KLASIKOEN INGURUKO TOPAKETA OSPATUKO DA EIBARREN**, sasoi batean gure herriak bizikletagintzan izan zuen garrantzia gogoan. Izan ere, Orbea, GAC, BH eta beste hainbat marka ezagun gure herrian jaiotakoak dira eta hori gogoratzeko helburuarekin antolatu dute jardunaldi berezi hau. 25 urtetik gorako bizikletekin har daiteke parte domekako ekitaldian eta, antolatzaileen berbetan, *"ahal dela, parte-hartzaileak antzinako jantziekin etortzea gustatuko litzaiguke".*

Goizean, 10.30etan Untzagan batuko dira parte-hartzaile guztiak eta banan-banan argazkia aterako zaie, bakoitzari bere bizikletarekin. Jarraian, indartzeko zerbait jan eta edateko aukera izango dute. Eguerdian, berriz, Eibarko Armagintzaren Museora bisitan joango dira, bertan, besteak beste, bizikleta-industriari eskainitako atala ikusteko. Horrekin batera, Eibarko Bizikleta Plazan bizikletak ikusgai egongo dira. 13.30ak aldera, herriko hainbat kaletan barrena ibilbidea egingo dute, sasoi batean BH, Orbea eta GAC egon zireneko tokiak ezagutzeko eta, ondoren, 14.00etan Saratsuegira igoera egingo dute, bizikletan, jakina. Saria emango diote lehenengoari. Eta jardunaldia agurtu aurretik, Saratsuegin bertan, La Jara jatetxean bazkalduko dute hala nahi dutenek.

# Perkusio tailerra uztailean



**DJEMBEA ETA ERRITMO AFRIKARRAK LANTZEKO PERKUSIO TAILERRA EGONGO DA MARTXAN UZTAILEAN.** Ume zein helduentzat izango da ikastaroa, Oier Pérezen eskutik, Bittor Sarasketa kaleko Amandria zentruan. Uztailaren 6an, 13an, 20an eta 27an izango dira klaseak, umeentzat 11.00etatik 12.30etara eta nagusientzat, berriz, 19.00etatik 20.30etara. Ikastaroaren prezioa 40 eurokoa da eta izena emateko 644387847 telefono zenbakira deitu daiteke.

# Udako ordutegiak

**UZTAILA ETA ABUZTUAN UDAKO ORDUTEGIA EGONGO DA INDARREAN PORTALEAN, JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAN ETA ARMAGINTZAREN MUSEOAN.** Portalea astelehenetik barixakura 09.00etatik 21.00etara egongo da zabalik uztailean eta 09.00etatik 14.00etara, berriz, abuztuan. Liburutegia astelehenetik barixakura 09.00etatik 13.30etara eta 16.30-etatik 19.30etara zabalduko dute uztailean eta abuztuan 09.00etatik 13.30etara (abuztuaren 9tik 20ra itxita egongo da). Eta Armagintzaren Museoa martitzenetik barixakura 16.00etatik 20.00etara zabalduko dute uztailean eta abuztuan, berriz, 10.00etatik 13.30etara.

# Sostoaren liburua kalean

**SOSTOA ABESBATZAK SAN JUAN JAIEN BUELTAN AURKEZTU ZUEN JOSÉ LUIS GOIKOETXEA ABESBATZAKO KIDEAK IDATZITAKO** liburua Portalean: "Maestoso primo tempo". Abesbatzaren sorreraren 25. urteurrenaren inguruan kaleratutako lanak urte hauetan guztietan eibartarrek eskainitako kontzertuen kronikak, egindako bidaiak eta bestelako pasarte berezi batzuk batzen ditu, hainbat argazki eta partiturarekin batera. Urtero eskaintzen duten San Juan kontzertuan liburua zein zuzenean grabatutako CDa ezagutzera eman zuten Sostoakoek.



Jesus Mari Sagarna, Mari Karmen Etxebarria eta J.L. Goikoetxea liburu egilea, San Juan kontzertuan. / KOLDO MITXELENA

# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**


Zorionak, JUGATX, ekaiñaren 25ian sei urte egin zenduazen-eta. Famelixaren partez.


Ongi etorri ekaiñaren 20xan jaixotako LIHER-i. Eta zorionak Nora eta Josebari haiñ ume politta ekartziagaittik. Famelixaren partez.


Zorionak, UGAITZ, ekaiñaren 25ian urtia bete zenduan-eta! Amama eta etxekuen partez.


Zorionak, OINATZ, atzo sei urte egin zenduazelako. Patxo haundixa famelixaren partez.


Zorionak, IZARO eta LUR, zeuon lehen urtebetetzian. Ama eta aittaren lagunen partetik.


Zorionak, UNAI, aurreko domekan 11 urte egin zenduazen-eta. Muxu haundi bat.


Muxu pillo bat JOKIN “bihurritxo” guriari 3. urtebetetzian. Ondo pasa eguna famelixa guztiarekin.


Zorionak, EKHI, 24an urte bi egin zenduazen-eta. Muxu haundi bat aitta, ama eta famelixaren partez.


Ongi etorri IRAIA Santos Pagei gure etxeko printzesari. Zorionak aitta eta amari etxekuen partez.


Zorionak, EKAIN, bost urte egin dozuz-eta. Ondo pasa, txapeldun, aitatxo, amatxo, Uxue eta famelixaren partez.


Zorionak, NORA, martitzenian zazpi urte egin zenduazen-eta. Famelixa guztiaren partez.


Zorionak, NORA, 5ian lau urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat Berrizko neskatilla polittenari, aitxitxa-amama eta izekoen partez.


Zorionak, MAIALEN, gaur bederatzi urte betetzen dozuzelako. Pa potolo bat Miren eta famelixaren partez.


Zorionak, GARAT Guenaga, ekaiñaren 25ian urtia egin zenduan-eta. Ganix eta famelixa guztiaren partez.


Zorionak, ANE Maiora Etxaburu, ekaiñaren 25ian sei urte egin zenduazelako. Famelixa guztiaren partez.


Ongi etorri, MAULE Bernedo Sarasketa. Patxo haundi bat famelixa danaren partetik.


Zorionak, SILBIA, atzo urtiak bete zenduazen-eta. Ondo ospatu, lagunen partez.

## JAIOTAKOAK

- **Nora Calderón Moreno.** 2010-VI-14.
- **Ixone Bilbao González.** 2010-VI-15.
- **Luis Alejandro Guzmán Córdoba.** 2010-VI-17.
- **Julia Etxeberria Rodríguez.** 2010-VI-17.
- **Mikel Rodríguez Rodríguez.** 2010-VI-18.
- **Maule Bernedo Sarasketa.** 2010-VI-19.
- **Lihert Arrillaga Orbegozo.** 2010-VI-20.
- **Sami El Hait.** 2010-VI-21
- **Elias El Akrouche.** 2010-VI-21.
- **Ane Ceballos Hernández.** 2010-VI-22.
- **Jon Soto Fondo.** 2010-VI-25.

## HILDAKOAK

- **Carmen Murgoitio Besoitaguena.** 92 urte. 2010-VI-16.
- **Jose Alberto Lamariano Baglietto.** 61 urte. 2010-VI-17.
- **Felisa Aragón Espinosa.** 75 urte. 2010-VI-18.
- **Petra Agirre Del Pulgar.** 92 urte. 2010-VI-20.
- **Elias Movilla González.** 74 urte. 2010-VI-23.
- **Enrique Maruri Goitiandia.** 78 urte. 2010-VI-24.
- **Jesus Rández Martínez.** 96 urte. 2010-VI-26.
- **Angelita Mendizabal Gallastegi.** 83 urte. 2010-VI-26.
- **Victor Sarasketa Leguina.** 69 urte. 2010-VI-26.
- **Cruz Ibarluzea Unamunzaga.** 100 urte. 2010-VI-28.
- **Julen Artetxe Belaustegi.** 77 urte. 2010-VI-29.

## horoskopoa

**ARIES**
Zenbakiak egingo dituzu eta aurreztu behar duzula konturatuko zara, udan planik egin nahi baduzu behintzat. Pentsa ezazu nondik hasi zaitezkeen.

**TAURUS**
Egun gogorrak bizi izan dituzu, baina benetan zoragarriak izan direnak aldi berean. Orain gertatuaz jabetzeko eta erlaxatzeko sasoia heldu da.

**GEMINI**
Sanjuanak amaitu eta Amañako eta San Kristobalgo jaiak gainean ditugu ia. Zure gorputzak jasango ditu hainbeste jai eta zalaparta?

**CANCER**
Dena ezin duzu kontrolpean eduki; ez zaitez harritu zuk jakin gabe gauzak gertatzen badira. Besteengan konfidantza gehiago behar duzu izan.

**LEO**
Zure jarrera ezberdina izango da datorren astetik aurrera. Inguruko gauzak baikorrago ikusiko dituzu eta horrek asko lagunduko dizu.

**VIRGO**
Giro ona bizi da zure ingurukoen artean eta animo asko emango dizu horrek. Azken aldian makal ibili zara eta horrelakoak eskertuko dituzu.

**LIBRA**
Jende berria ezagutuko duzu datozen egunotan, benetan harrituko zaituena. Zure ingurutik kanpo bizitza dagoela ikusiko duzu.

**SCORPIUS**
Burukomina, beherakoa... latza harrapatuko duzu! Ohean egun bi ematen badituzu, ondo jarriko zara; zure osasuna da garrantzitsuena.

**SAGITTARIUS**
Zure helburuak zeintzuk diren zehaztu eta ahaleginak egingo dituzu horiek lortzeko. Gutxienez norantz joko duzun jakingo duzu.

**CAPRICORNIUS**
Edozer gauza eska dezakezu, zure nahiak behingoz bete egingo zaizkizu-eta. Hala ere, ez zaitez pasa eskaerekin! Edozeinek daki!

**AQUARIUS**
Liburu bat idazteko haina istorio gertatuko zaizkizu aste osoan. Denetarik gertatuko zaizu, gauza barregarriak eta ez hain barregarriak.

**PISCIS**
Inor ez da perfektua, ezta zu ere. Dena ondo egitea ezinezkoa da; beraz, akatsak onartu egin beharko dituzu. Besteei ere gertatzen zaie.

## Barixakua 2

**ARRATEKO IGOERA**
**15.30/21.00.-** Automobilen erakusketa.

**AMAÑAKO JAIAK**
**19.00.-** Txupinazoa, Miguel de los Toyos-en eskutik. Kalejira, Tolosako Oria txarangarekin.
**19.45.-** Jokoak eta ikuskizuna, Gorritirekin.
**21.00.-** Entzierro txikia.
**23.45.-** Kontzertua, Norman, Soziedad Alkoholika eta Piperrak taldeekin.

**GAUEKO KONTZERTUA**
**23.00.-** Cielito Musika Bandaren gaueko kontzertua. Toribio Etxebarria kalean.

## Zapatua 3

**ARRATEKO IGOERA**
**08.30.-** Entrenamenduak.
**11.30.-** Auto lasterketa.
**15.00.-** Entrenamenduak.
**18.00.-** Auto lasterketa.
**20.00.-** Sari-banaketa ekitaldia (El Corte Inglés-en).

**AMAÑAKO JAIAK**
**12.30.-** Paella erraldoiaren prestaketa.
**14.15.-** Herri bazkaria.
**16.30.-** Jone Uria eta Miren Gisasola trikitilarien emanaldia.
**17.15.-** Umeendako jokoak, Gorritirekin.
**19.15.-** Herri kirolak. Iñaki eta Iñaxio Perurena harrijasotzaileak, Fausto Mugertza eta Angel Arrospide aizkolariak eta Juanjo Agirregabiria txingekin.
**21.00.-** Entzierro txikia.
**23.15/00.30.-** Helduen danborrada, Elgoibarko Mauxitxa txarangarekin.
**00.00.-** Suzko erroberak, Pirotecnia Zaragozanarekin.
**00.15.-** Danborradak jarraituko du.
**00.45.-** Berbena, Zaragozako Oasis orkestarekin.

**SAN KRISTOBALGO JAIAK**
**16.00.-** Tute txapelketa.

## Domeka 4

**CICLOCLASICA**
**10.30.-** Parte-hartzaileak batu eta argazkia aterako zaie.
**12.00.-** Eibarko Museora bisita.
**13.30.-** Bizikleta fabrika ohiak zeuden tokietara bisita.
**14.00.-** Saratsuegira igoera (saria irabazlearentzat).
**14.15.-** Bazkaria La Jara jatetxean.

**AMAÑAKO JAIAK**
**11.00.-** Meza, Amañako parrokian.
**12.00.-** Salda eta txorizoa.
**12.30.-** Umeen danborrada, Tolosako Oria txarangak lagunduta.
**13.30.-** Lorontzi lehiaketa, sari askorekin.
**16.45.-** Umeendako jokoak, sorpresa eta opari mordoarekin.
**18.00.-** Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior pailazoen emanaldia.
**19.15.-** Umeendako txokolate-jana, gailetekin.
**19.15.-** Kale-antzerkia, Zangunago antzerki taldearekin: *"La Mecánica de la Naranja"*.
**20.15.-** Nafarroako jotak, Alma Navarra taldearekin.
**22.00.-** Jai-amaiera, txapligu jaurtiketarekin.



Cicloclásicak domekako goiza hartuko du.

## Martitzena 6

**DIAPORAMA**
**22.00.-** *"La Tradart"* (M. A. Otsoa de Alda eta I. Diaz de Garaio). San Andres elizaren klaustroan.

## Eguaztena 7

**DIAPORAMA**
**22.00.-** *"Himalaya ezezaguna: Kaxmir eta Ladakh"* (Asier Aranzabal eta Mila Gallastegi). San Andres elizaren klaustroan.

## Eguena 8

**SAN KRISTOBALGO JAIAK**
**19.00.-** Futbolin txapelketa.
**22.00.-** Toka txapelketa.

**DIAPORAMA**
**22.00.-** *"Siria eta Jordania"* (Martin Bono). San Andres elizaren klaustroan.



# eguraldia (EUSKALMET.NET)



## erakusketak

– *Uztailaren 3tik 9ra*

***LAMBRETTA MOTORREN*** erakusketa.
*Eibarko dendetan.*

– *Uztailaren 30era arte*

***"EGOAIZIAREN JOAN-ETORRIAK"***.
*Portalea Jatetxean.*

## ikastaroak

**- Perkusio tailerra.**
Noiz eta non: Uztailak 6, 13, 20 eta 27an, 11.00etatik 12.30etara (umeak) eta 19.00etatik 20.30etara (nagusiak), Amandrian (Bittor Sarasketa, 2).
Izen-ematea: 644387847 telefonoan.

## lehiaketak

**- Asier Errasti Eibarko XI. Laburmetraia Jaialdia.**
Lanak aurkeztea: Urriaren 8ra arte, Pegoran.
Informazioa: www.planocorto.es, www.eibar.net

**– Indalezio Ojanguren XXIII. Argazki Lehiaketa.**
Lanak aurkeztea: Urriaren 8ra arte, Pegoran.

## farmaziak

***2, barixakua***
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

***3, zapatua***
EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 20)
GAUEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 20)

***4, domeka***
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

***5, astelehena***
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

***6, martitzena***
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

***7, eguaztena***
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

***8, eguena***
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

***9, barixakua***
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ *Alberdi (Zubiaurre, 9)*

## DENBORAPASAK

### SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | | 4 | | | | 7 | 3 |
| | | | | | 6 | | | |
| | | | | 5 | | 1 | | 9 |
| 5 | 6 | 4 | | | | | 2 | |
| | | | | 6 | | | | |
| | 2 | | | | | 8 | 6 | 7 |
| 6 | | 3 | | 9 | | | | |
| | | | 2 | | | | | |
| 7 | 9 | | | | 3 | | 4 | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 5 | 1 | 2 | 7 | 3 | 9 | 8 | 4 |
| 2 | 9 | 4 | 6 | 8 | 1 | 3 | 7 | 5 |
| 7 | 3 | 8 | 5 | 4 | 9 | 1 | 6 | 2 |
| 1 | 7 | 3 | 4 | 9 | 6 | 5 | 2 | 8 |
| 4 | 8 | 2 | 1 | 5 | 7 | 6 | 9 | 3 |
| 9 | 6 | 5 | 3 | 2 | 8 | 7 | 4 | 1 |
| 8 | 2 | 7 | 9 | 3 | 5 | 4 | 1 | 6 |
| 3 | 4 | 6 | 7 | 1 | 1 | 8 | 5 | 9 |
| 5 | 1 | 9 | 8 | 6 | 4 | 2 | 3 | 7 |

AURREKOAREN EMAITZA

## telefono jakingarriak

SOS deiak ........................*112*
Pegora .............................*010*
Udaletxea .........*943 70 84 00*
Portalea............*943 70 84 39*
Udaltzaingoa.....*943 20 15 25*
Mankomunitatea*943 70 07 99*
Debegesa..........*943 82 01 10*
KIUB .................*943 20 38 43*
Epaitegia ..........*943 03 34 00*
Iberdrola ..........*901 20 20 20*
Naturgas...........*902 12 34 56*
DYA Larrialdiak.*943 46 46 22*
Gurutze Gorria..*943 22 22 22*
Mendaro osp.....*943 03 28 00*
Anbulategia......*943 03 25 00*
Torrekua...........*943 03 26 50*
Errepideak........*902 11 20 88*
Ertzaintza .........*943 53 17 00*
Eusko Tren .......*902 54 32 10*
Pesa .................*902 10 12 10*
Taxiak...............*943 20 30 71*
.........................*943 20 13 25*
Alkohol.Anon. ..*629 14 18 74*
Al-Anon/Alateen *650 26 59 63*

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 18.30etara orduro, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.
**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30-etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
**EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara orduro. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara orduro eta 21.55.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20,47etara orduro, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13-etara orduro, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


# 1. Etxebizitza

## 1.1. Salgai

– Legarren pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzera sartzeko moduan. Berriztuta. 24.500.000 pta. Tel. 659-687736.
– Duplexa salgai Elgetan. 85 m². 3 logela, egongela beheko suarekin eta bainugela bi. Berogailua. Guztiz jantzita. 180.000 euro. Aukera aproposa gazte edo bikoteentzat. Tel. 685-751891.
– Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. 160.000 euro. Tel. 636-930962 edo 649-091192.
– Pisua salgai Armagin kalean (Txaltxa-Zelai ingurua). 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta kamarotea. Igogailua. Jantzita eta berriztuta. Tel. 679-668719.
– Aukera! Trasladoa dela-eta, pisu zoragarria salgai Errebalen. 4 logela, egongela, sukalde-jangela, komun bi, estudioa eta estalitako terraza handia. Guztiz berriztua eta kanpora begira. Prezio interesgarria. Tel. 605-772606.

## 1.2. Errentan

– Pisua alokagai Eibarko erdialdean. Logela bi. Jantzita. Tel. 672-428273. Eva.
– Calpen (Alacant) apartamentua alokagai ekaina eta uztailerako. Hondartzaren 1. lerroan. Igerilekua eta garajea. Tel. 943-171107.
– Pisua alokagai Toribio Etxebarrian. Tel. 943-120219 edo 659-208746.

# 2. Motorra

## 2.1. Salgai

– Scooter 125 motorra salgai. 3 urte. 6.700 km. Tel. 630-810099 edo 617-099029.

# 3. Lokalak

## 3.1. Salgai

– Txabola salgai, terrenoarekin. Azitaingo poligono industrialean. Berritzeko. Tel. 618-875007.
– Lokala salgai Urkizu aldean. 90 m². Prezio ezin hobea. Deitu 17.00etatik aurrera. Tel. 606-773886.
– Garaje itxia salgai Barakaldo kaleko solairu batean. Tel. 686-224524.
– Erabilpen askotarako txoko edo lokala salgai edo alokagai Eibarko erdialdean. Berriztua, sukaldea eta komunarekin. Tel. 669-293427.

## 3.2. Errentan

– Garajea alokairuan Urkizun. Marradun partzela. Tel. 609-453946.

# 4. Lana

## 4.1. Lan bila

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 625-992721.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldean laguntzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 690-156040.
– Emakumea eskaintzen da erizain-laguntzaile moduan. 20 urteko esperientzia. Uztailean eta abuztuan familiarekin; bestela, interna moduan. Tel. 610-936839.
– Emakume euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera umeak ikastolara eramateko. Tel. 615-755991.
– Emakumea eskaintzen da garbiketa lanetarako eta nagusiak zaintzeko. Tel. 686-435056.
– Emakumea eskaintzen da garbiketa lanetarako eta nagusiak zaintzeko. Tel. 636-274458.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 656-493864.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 608-147559.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Oporretan ere bai. Tel. 686-802342.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Oporretan ere bai. Tel. 675-421933.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Oporretan ere bai. Tel. 650-152866.
– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 628-740765.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 669-742789.
– Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 690-359554.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 618-050902.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 685-765340.
– Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 646-358709.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko astelehenetik ostiralera. Esperientzia. Tel. 630-268100. Manoli.
– Emakumea eskaintzen da tabernarako zerbitzari herriko jaietan eta asteburuetan. Esperientzia. Tel. 617-894103.
– Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 620-471145.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 697-532613.
– Mutila eskaintzen da sukaldean laguntzeko, igeltsero peoi moduan eta merkantziak banatzeko. Tel. 638-344377 edo 943-530795.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 638-344377 edo 943-530795.
– Neska eskaintzen da kamarera moduan, garbiketak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 657-142376.
– Mutila eskaintzen da kamarero edo peoi moduan. Esperientzia. Tel. 697-481483.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 943-171583.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, egunez zein gauez. Tel. 645-461600.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 646-821678.
– Gizonezkoa eskaintzen da baserrietan lan egiteko eta tabernan jardun edo sukaldean laguntzeko. Tel. 686-077316.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari laguntzaile moduan. Tel. 636-172765.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta arduratsua. Gidatzeko karneta. Tel. 695-701753.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Asteburuetan eta orduka. Esperientzia. Erreferentziak. Tel. 618-175692.
– Neska eskaintzen edozein lanetarako. Tel. 657-316104.
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan, garbiketa lanetarako eta nagusiak zaintzeko. Tel. 699-609190.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Erreferentziak. Tel. 686-420642.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 669-966611.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 659-080186.
– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 646-394857.

## 4.2. Langile bila

– Kamarera/o behar da Maixa tabernan. Jornada erdiz. Tel. 605-908924.
– Kamarera/o behar da asteburuetarako Aldatz tabernan. Tel. 943-206143.
– Kamareroa behar da terrazarako. Tel. 943-701207.
– Sukaldaria behar da Eibarko taberna batean. Tel. 943-206868.
– Kamarera/o behar da Maixa tabernan. Esperientziarekin. Tel. 605-908924.

# 5. Irakaskuntza

## 5.2. Eskaintzak

– Errefortzu klaseak emango nituzke uztailean: Matematikak, Fisika, Kimika... Tel. 620-197174.
– Goi ikasketa teknikodun gazte euskaldunak klase partikularrak emango lituzke. Tel. 678-346970.

# 6. Denetarik

## 6.1. Salgai

– Ileapaindegiko gailu eta produktuak salgai, jubilazioa dela-eta. Sekadorak, silloiak, plantxak... Tel. 943-207630. Mª Carmen.
– Maxicosia, silla eta kapazo itsas urdina salgai. Sakoak, fundak eta burbuilak oparitzen dira. Tel. 617-256466.
– Bebecar karroa salgai. 3 erroberakoa, silla eta kapazoa. Errobera berriak, 2. umearendako patina, plastikoa eta motxila. Egoera onean. 200 euro. Tel. 609-492777.
– DBHko 4. mailako Itzioko liburuak erosteko prest, latina barne. Tel. 688-605780.

## 4.2. Eman

– Txintxilla kume bi oparitzen ditut, kaiola eta guzti. Tel. 605-772606.
– Sukaldatzeko sua lagatzeko asmoa baduzu, gustura hartuko genuke. Tel. 664-212382.





Matrikula

UZTAILAREN 7tik 13ra

Uni

**UNI EIBAR**



**Otaola Hiribidea, 29**
20600 EIBAR
**Tel.** 943 20 84 44
**Faxa.** 943 20 31 96
uni@iesunibhi.com
**www.iesunibhi.com**

**UNI ERMUA**



**Ongarai Auzoa**
48260 ERMUA
**Tel.** 943 17 62 57
**Faxa.** 943 17 64 50
uni@iesunibhi.com
**www.iesunibhi.com**



**GURE ESKAINTZA**

**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

Merkataritza
Administrazio Kudeaketa
Mikroinformatika-Sistemak eta Sareak

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

Nazioarteko Merkataritza
Administrazio eta Finantzak
Informatika-Aplikazioen Garapena
Gorputz eta Kirol-ekintzen Animazioa
Informatika Sistemen Administrazioa

**Lana eta Etengabeko Prestakuntza*
**Erasmus eta Leonardo Programak*

**BATXILERGOA**

Giza eta Gizarte Zientziak
Zientzia eta Teknologia

**TEORIKA ATERATZEKO**
**IKASTARO TRINKOAK**

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
**nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak




GIDATZEKO
KARNET
GUZTIAK

SOLOZABAL
autoeskolak

**Estaziño kalea, 8**
**Tel. 943 70 23 78**

**BERRIA**
**T. Etxebarria, 7**
**Tel. 943 70 23 84**

